

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Barkos Lehendakariak Karlos III.a Nobilearen Gurutzearekin saritutako bederatzi lagunen ahalegina, iraunkortasuna, ekintzailtza eta hobetzea nabarmendu ditu

*Sari horiek emateko ekitaldiaren buru izan da Uxue Barkos, eta honako hauek jaso dute saria: Uxua López, Ana Díez, Ascen Cruchaga, Frías ahizpak, Mirentxu Oyarzabal, Koruen Federazioa, Arza ahizpak, Gaz Kaló eta Arregi/Urbeltz senar-emazteak*

Larunbata, 2018.eko maiatzak 12

### Nafarroako

Lehendakariak, Uxue Barkosek, zuzendu du gaur goizean Nafarroako Karlos III.a Nobilearen Gurutzea emateko egin den ekitaldia; hain zuzen ere, bederatzi pertsona eta erakunderi eman zaie, eta Barkosek haien "ahalegin, iraunkortasun, ekintzailtza eta hobetze adibideak" nabarmendu ditu. Bederatziak



Irabazleak, Barkos lehendakariarekin batera.

honako hauek dira: Uxua López Flamarique, ikertzailea; Ana Díez Díaz, zinema-zuzendaria; Ascen Cruchaga Lasa, enpresaria; Frías Sagardoy ahizpak, arkitektoak; Mirentxu Oyarzabal Irigoyen, endokrinologoa; Nafarroako Koruen Federazioa; Arza Suescun ahizpak, Hartza jatetxeak; Gaz Kaló Federazioa, ijitoen herriaren defentsarako; eta Marian Arregi Sarasola, hil eta gero, eta Juan Antonio Urbeltz Navarro, Argia Dantza Taldea sortutako senar-emazteak.

Ekitaldia Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuko Isabeldar Klaustroan egin da, eta bertan izan dira Foru Gobernuako kide guztiak nahiz Parlamentuko Lehendakaria, Ainhoa Aznárez, eta Gobernu Zentraleko delegatua, Carmen Alba, beste agintari batzuen artean.

Euskalerriko Txistulari Elkarteak Nafarroako himnoa jo du ekitaldiaren hasieran; baita ere, "Tuterako jota", "Sagar dantza", Baztango inauterietako dantza, eta "La Vihela" ikus ahal izan dira, gurutzeak edo dominak ematerakoan ohikoa den erdi aroko dantza. Musikaren zatia amaitzeko, "Belauntxingo"ko bi dantzarik emanaldia eskaini dute, oroitzapenezko dantza.

### Lehendakariaren hitzaldia

Dominak sarituei banatu ondoren, Barkos Lehendakariak hitz batzuk

eskaini dizkie bertaratutakoei. Barkosek gogoratu du sari horiek Nafarroako Erresumaren historiako pertsonaia garrantzitsuenetariko baten izena dutela; hots, Evreux-eko Karlos III.arena, Nafarroako helmugak ia lau hamarkadatan gobernatutako monarkarena, "zuzenbidean, ekonomian eta adierazpen artistikoetan hobekuntzak sustatuaz; gaur egun, handik sei mendera, aztarna solidoa eta agerikoa mantentzen da. "Eta balio horiek –jarraitu du Barkosek- une honetan saritutako pertsona eta erakundeekiko Nafarroako egungo herritarren errekonozimendua eta esker ona sinbolizatzeke balio duten berak dira".

Presidenteak positiboki nabarmendu nahi izan du edizio honetan sari gehienak emakumeei eman zaizkiela. Emakumeei zein gizonei eskerrak eman dizkie "zuen lanera aplikatutako bultzadaren adibidearengatik, zuen ekimen ekintzailearengatik, zuen eskuzabaltasunarengatik, erabakigarriak izan baitira Nafarroak aurrera jarraitzeke".

### **Sarituen errekonozimendua**

Uxua López Flamarique ikertzailearen inguruan nabarmendu du "energia berriztagarriak indartzeko eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko egindako ahalegina, ikerketa zientifikotik erreparatuta eta genero-ikuspegiarekin". Ana Díez Díazi dagokionean, "indarkeria eta maila pertsonalean eta kolektiboan eragiten dituen efektu tragikoak eta ikaragarriak salatzeke konpromiso soziala" aipatu du; eta Ascen Cruçhaga Lasaren inguruan esan du "karrera bikaineko enpresaburua dela aeronautika, sektore espaziala eta trenbide-sektorea bezalako puntako sektoreetan".

Frías Sargardoy ahizpak arkitektoei (María Rosario, María Antonia eta María Paz) dagokienez, berriz, Barkosek azpimarratu du "moldeak hautsi dituzten emakumeak direla, arkitektura izan den bezalako eremu profesional hain maskulinoan sartuta". Mirentxu Oyarzabal Irigoyen endokrinologoaren inguruan, "haren kezka pertsonal eta solidarioa, Nafarroako haur eta gazte diabetikoen Guraso Elkartearen bultzatzaile bezala eta osasun unibertsalerako eskubidearen defendatzaile moduan" nabarmendu ditu. Horrez gain, Nafarroako Koruen Federazioari dagokienez, esan du "duela 30 urtetik hona musika-artearen emari handia bultzatzen duela, eta horretaz gozatzen dutela koruko 5.000 lagunek eta herritarrek oro har".

Iruñeko "Hartza" jatetxeko Arza Suescu ahizpak jatetxe-buruei (Julia, Juana Mari eta Manoli) dagokienez, Lehendakariak ondorengo azpimarratu du: "hain jatetxea Nafarroako gastronomian puntako establezimendu bilakatu zuten" eta adibide horrek "balio izan du Nafarroaren irudi bikaina eskaintzen duen sektore finkatua sortzeke". Nafarroako Ijitoen Elkarteen Federazioaren (Gaz Kaló) inguruan, berriz, "alderdi guztietan gizarteratzeko lana eta Nafarroako gizartean talde horrek duen presentzia" nabarmendu ditu. Azkenik, Argia Dantza Taldea sortu zuten eta gure folkloreaken sustraiak ikertu zituen Marian Arregi Sarasolaren (hil eta gero) eta Juan Antonio Urbeltz Navarro senar-emazteen inguruan, "elementu tradizionalak ezagutzeko, sortzeke eta artistikoki aurkezteke izandako iraunkortasun-ilusioa" azpimarratu ditu.

### **Karlos III.aren Gurutzea**

1997. urtean, Nafarroako Karlos III.a Noblearen Gurutzea saria sortu zuen Foru Gobernuak, Nafarroako gizartearen aurrerapenean edo Komunitatea kanpoan ezagutarazten, bakoitzaren jardueren eremu zehatzetik era nabarmenean lagundu duten pertsona eta erakundeei errekonozimendu publikoa emateke. Saria foru-dekretu bidez ematen da.

Sariak Karlos III.a Noblearen izena hartzen du; hots, Nafarroako errege guztien artean nabarmendutako monarkarena, bakezalea eta adiskidetzalea izateagatik, kulturaren eta artearen aldeko ekimenak egiteagatik eta Europako gainerako gorteekin bake- eta adiskidetasun-harremanak ezartzeagatik.

Kondekorazioa gurutze esmaltatu bat da, eta Nafarroako Artxibo Orokorrean gordetzen den ezkozko errege-zigiluan agertzen den Karlos III. eseriaren irudia berregiten da, "Karolus regis navarre" legendaz inguratuta. Atzealdean Nafarroako ezkutua dago, "Nafarroako Foru Komunitatea" adierazpenaren eta "Cruz de Carlos III el Noble de Navarra" legendaren gainean.